

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 24an hartutako erabakia-
ren laburpena; bertan deitzen baitira 2026-2027 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkun-
tza Zerbitzuaren edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren hezkuntza-programetan parte har-
tzen duten ikastetxeentzako garraiorako dirulaguntzen deialdi publikoa eta deialdiaren oinarriak**

BDNS(Identif.): 911829.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/eu/convocatorias/911829>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurre-ikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-lagun-zen Datu-Base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Derrigorrezko Hezkuntza duten Vitoria-Gasteizko ikas-
tetxeak izango dira deialdi honen hartzaileak, betiere, ikastetxe horietako ikasleek (guztiek edo
batzuek) 2026-2027an Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak edota Ingurugiro Gaieta-
rako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-programetako batean parte hartzen badute eta, horrez
gain, garraio kolektiboren bat erabili behar izan badute beren ikastetxetik programa gauzatu
den tokira joateko edo alderantzizko bidea egiteko.

Bigarrena. Helburua

Hauxe da dirulaguntzen deialdi honen xedea: 2026-2027 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Uda-
leko Hezkuntza Zerbitzuak edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-pro-
grametan parte hartzen duten ikastetxeei beren gastuetan laguntzea, ikasleak garraio kolekti-
boetan garraiatzeak eragindako gastuetan, zehazki.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 24an onartu zituen,
eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 25.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Dirulaguntzaren eskaera eta dagokion dokumentazioa nahiz diruz lagundu daitekeen ga-
rraio-gastuaren justifikazioa aldi berean aurkeztuko dira, horretarako ezarritako epean, hots,
oinarri hauen deialdiari dagokion laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik
hasi eta 2027ko ekainaren 25era bitartean (egun hori barne). Eskabideak eta justifikazioa epez
kanpo aurkezteko dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 24a

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA